

Enpresa lankidetza

EROSKI FRANKIZIEK ETA ATA-K HITZARMEN BAT SINATU DUTE EKINTZAILETASUNA SUSTATZEKO

- EROSKI lankidetza esparru bat ezarriko du, eta horren bidez, aukera berriak hurbilago izango dituzte autonomoek, beren jarduera dibertsifikatu eta arlo egonkorragoetara eta etorkizun gehiago dutenetara jotzeko
- EROSKIren frankizia sareak saria irabazi berria du Balearretako Frankizien Azokan; horrenbestez, sariren bat lortu du bost urtez jarraian

Madril, 2019ko ekainaren 18a.- Finkatu diren autonomoei laguntzeko eta ekintzailetasuna sustatzeko sinatu dute [EROSKI](#) eta Langile Autonomoen Elkartearen Espainiako Federazioak lankidetza hitzarmena. Federazioaren egoitzan izenpetu dute batetik ATAk presidente Lorenzo Amorrekin eta bestetik EROSKIren Frankizien zuzendari Enrique Martinezek. Lankidetza esparru hori ezarrita, alternatibak aurkituko dituzte autonomoek beren oraingo jarduera dibertsifikatzeko eta etorkizun gehiago dutenetara jotzeko.

Urtebetez izango da indarrean, eta ekintzaileen kolektiboari laguntzeko ekintzak ekarriko ditu; besteren artean, EROSKIren frankizien proiektuaren berri ematea ATAk bazkideei.

Lorenzo Amor ATAk presidenteak honela esan du: *"Pozik gaude, EROSKI bat egin duelako gure kolaboratzaile talde ospetsuarekin, eta asko eskertzen dugu guregan ipini duen konfiantza. EROSKI eskarmentua emango digu, eta txikizkako sektorean giltzarritzkoa den eragile baten bikaintasuna. Oroz gain, autonomoek gero eta gehiago balioesten duten alternatiba bat ekarriko du gure frankiziaren negozio ereduan. Aukera berri bat, batez ere bere negozio eredua berritzeko premian direnentzat edo belaunaldi berriari eta bere erretiroari berehalako irtenbide bat eman nahi diotenentzat. Askotan esaten dugu janari denda txiki bat hiltzen denean haren landa inguruneak pairatzen duela. Enplegua sorraraziko duen alternatiba bat nahi dugu, eta Espainiako herri txiki eta ez hain txikien ekonomia dinamizatu".*

EROSKIren frankizien zuzendariak hauxe nabarmendu du: *"Hitzarmen honekin gure konpromisoa indartu nahi dugu ekintzailearekin; izan ere, gure eredu kooperatiboa dela eta, hau da, langile-jabeak garelako eta, inork baino hobeto ulertzen ditugu haren kezkak eta premiak, eta uneoro laguntzen eta irtenbideak ematen saiatzen gara. Gure frankizia ereduak negozio aukera berri bat dakarkie janariaren sektoreko enpresaburuei, eta aldi berean egonkortasun handia.*

ATA

ATA Langile Autonomoen Espainiako Federazioak 25 urte daramatza langile autonomoak defendatzen eta ordezkatzeko. Gaur egun, Espainia mailako erakunde bat da, autonomoak diren 210.000 bazkide dituen; kopuru horri ordezkari utzia dutenak batuz gero, 450.000 autonomo baino gehiago ateratzen dira.

EROSKI frankiziak

Estatuan frankizia bidezko supermerkatuak dituen bigarren taldea da EROSKI gaur egun. EROSKI aurreko urteetako irekieren erritmoari eusten dio; hala, lau urte honetan, 267 inaugurazio baino gehiago egin ditu, eta gaur egun, frankizia erako 500 bat supermerkatu ditu. 2019ko ekitaldian, kooperatibaren asmoa da 50 bat frankizia inauguratzea.

EROSKIren frankizien sarea saritu berria izan da Balearretako Frankizien I. Azokan; aukera askatasunaren saria, hain zuzen, FrankiBalears Aretoak emanik. Azken urteetan, Espainiako Merkataritza arloko Frankiziarik Onenaren Saria eman diote birritan. Sari horren helburua da negozio modalitate honetan jarduten diren aktore nagusiak balioan jartzea eta haien lana aitortzea. EROSKI markak beste sari bat ere jaso zuen Frankinorte Azokan, 2014an eta 2015eko lehen seihilekoan lanpostu gehien sorrarazi zuen Enpresa Frankiziatzailea izan zelako. Eta, 2017an, frankiziarik nabarmenenaren saria jaso zuen saltoki/retail sailean, Hegoaldeko Frankizien eta Negozioen Azokan.

Informazioa:

EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642	ATA Geles Martínez Tel.: 914445850 - 619099879 comunicacion@ata.es Ana Riaño prensa@ata.es
---	--